

TEKNOLOGIA

Eremu digitalean proiektatzen duguna



DIANA FRANCO

Pasa den urtean, Durango Azokako Kabinan, hitz berri bat ikasi nuen: NFT (*non fungible token*). Alegia, kriptotxanponen munduari lotutako teknologiarekin sorkuntza digitalei balioa eransteko aukera ematen duen prozesua. Bitcoin gisako kriptotxanponen ezaugarri bat da sistema publiko banatu batean oinarrituta daudela. Sistema publiko horren analogia bat kontabilitatean erabili ohi den liburu nagusiarena litzateke, non enpresa baten edozein mugimendu jasotzen den. NFTa sorkuntza digital baten erregistroa litzateke liburu nagusi horretan, sorkuntza horren jabea nor den jasotzeko modua. Ideia da artearen munduan historikoki egin dena errepikatzea: eremu fisikoan artelanak, orokorrean, bakarrak dira eta ezin dira errepikatu, eta beren jabetzaren inguruan merkatu bat existitzen da. NFTk ere hori bilatzen du, baina ezaugarri interesgarrienetako bat guztiz alderantzizkoa da: berdin errepikatzea baimentzen du. Askoren ustez jabetzaren inguruan espekulazio hutsa dakar horrek, negozio eredu berriak sortzeko bidean.

NFTaren ideia nora iritsiko den ez dakit, baina zenbat kostatzen zaigun eredu berriak pentsatzea. Batez ere sorkuntzaren eremuan, sorkuntza lana balioan jartzea zaila izaten baita, zer esanik ez errazki errepikakorra egiten duen eremu digitalean. Azken batean, horrelako ideiak sorkuntza digitalari loturiko jarduera eskaera-eskaintza merkatuaren logiketan txertatzeko ahalginak dira. Orain arteko ereduak eremu digitalean proiektatzen gabiltza uneoro.

Inoiz ez bezala ordea, eremu digitalean sortzeko moduak aldatzen ari dira, errepikatze eta errazki partekatze aukerek sortzaile komunitateak biltzen dituzte gai ezberdinen inguruan. Beraz medioak berak gure betiko dinamiken inguruan pentsatzeko, esperimentatzeko eta egiteko aukerak dakartza, ez dugu zertan betiko bidea jarraitu balioa sortzeko, bestelako moduak ere proiektatzeko aukera dago. ●

NAZIOARTEA



REUTERS

Nazioartera zabaldu da gatazka

AXIER LOPEZ

Urtarrilaren 2an protestak hasi dira Kazakhstanen. Egun gutxian gobernu bat botatzea lortu dute eta SESBetik independentzia lortu zuenetik herrialdean izandako krisirik handiena eragin dute. Lehen begiratuan inork ez zuen aurreikusi tamaina horretako erantzunik gobernuak autoentzako erregaiaren prezioa igotzea erabaki zuenean. Litroko 0,12 euroko prezioa bikoiztu zuen. Ez zen oso neurri herrikoia baina munduko zazpigarren herrialderik handieneko agintarien aurreikuspen guztiak gaingitu zituen herriarren erantzunak. Kazakhstandar asko gobernuaren aurka kalera atera zen suminduta. Lehen erantzun ofiziala, ohikoena: esku gogorra.

Kassim-Jomart Tokaiev presidenteak errepresio zorrotza agindu zuen, baina manifestariak ez ziren kildu. Almatyko udaletxea erre, aireportua okupatu eta poliziaren autoak erre zituzten. Batetik, hemezortzi polizia hil dituzte eta bestetik, hildako manifestarien kopurua handiagoa, baina zehaztugabea da. Milaka dira zaurituak eta atxilotuak.

Protesten lehen egunetan Tokaievek berehala indargabetu zuen erregaiaren igoera, eta prezioa 0,12tik behera ere jaitsi zuen, baina berandu zen. Mobilizazioak ez ziren amaitu eta presidenteak gobernukide batzuk kargutik kendu zituen. Gobernua Nursultan Nazarbaieven agintaren jarraipena da. Nazarbaiev 25 urtez izan zen agintean, 1984tik,

arteaz Kazakhstan sobietar errepublika zela, 2019ko martxora arte. Baina kontinuisismoaren figura nagusiak kentzea ere ez da nahikoa izan oraingoz buruzagi argirik ez duen mugimendua baretzeko.

Zurrumbilo bortitzaren erdian, protesten zabalpena eta manifestarien arteko komunikazioa eragozteko Kazakhstango agintariak Internetarako sarbidea eten dute; urtarrilaren 5etik 10era arte ia erabat indargabetuta izan da sarea. Gainera, herrialdeak ez du kazetaririk sartzen uzten, beraz bitarteko eta lekuko askorik gabe "ulergarriagoa" da zergatik Tokaievek esan duen protestariak atzerrian trebatutako terroristak direla.

Eta hori egin du, hain justu, Segurtasun Kolektiborako Itunaren Erakundeari (ODKB errusierazko sigletan) publikoki laguntza militarra eskatu dionean "mehatxu terroristari" aurre egiteko. ODKB-ko kide da Kazakhstan, Errusia, Armenia, Bielorrusia, Kirgizistan eta Tajikistanekin batera, denak herrialde sobietar ohiak. Dagoneko atzerriko 3.770 soldadu daude Kazakhstanen, eta Tokaievek eta Moskuk "bake-tropak" deitu arren, nekez ikusiko dute hala manifestariak.

Edonola ere, egun nazioarteko tropak herrialde batera sartu dira erregimen politikoaren "segurtasuna bermatzeko", baliabide natural aberatsak dituen herrialde batean, nagusiki hobekuntza sozialak eskatzen dituen eta agintariekin akitua den jendea aurre egiteko. ●